Beñat Fernandez “Pelontxu” moto-gidaria omendu du Andoaingo Udalak

2026.10.24- Irailaren 20an lortu zuen Beñat Fernandez “Pelontxu” gazteak Red Bull Rookies Cupen munduko lehen postuan gelditzea Austrian. Andoaingo Udalak lorpen hori eta beste hainbat eskuratzeagatik omendu nahi izan du gazte andoaindarra.

Andoni Alvarez alkateak egin dio harrera batzar aretoa: “Kirolak emaitzak ematen ditu, baina baita ereduak ere. Eta zu erreferente bilakatu zara gaur egun herriko haur eta gazte askorentzat. Zure ibilbideak erakusten du talentua garrantzitsua dela, baina lanik eta iraunkortasunik gabe ez dagoela helmugarik”.

Alkatearekin eta Andoaingo Udaleko gainerako ordezkariekin batera egon da Goizane Alvarez Irijoa Kultura, Kooperazio, Gazteria eta Kirol departamentuko foru diputatua.

Herritarren harrera

Harrera instituzionalaren ostean etorri da herritarren eskertza jasotzeko ekitaldia. Lagunez, entrenatzailea eta familiaz inguratuta jaso du Andoaingo herriaren berotasuna.

Dozenaka lagun eta jarraitzaile bildu dira Kontzejupean, Beñat Fernandezen ibilbidea errepasatu eta berarekin batera garaipenak ospatzeko.